

## EDITORIALA

### Zorionak!

Egun gogoangarria duela hamar urte proiektu berri, erakargarri eta sinesgarriak argia ikusi zueneko Iparraldean. Bukolismora eta turismo bakarrik kondaturik omen zirudien herrialdeak, bestelako alternatibak egingarriak zirela erakutsi zuen adorez. Bertako jendearekin, bertako militanteekin gai izan ziren nekazarien engaiamendua eta atxikimendua lortzeko, guztiz baliagarriak ziren ekimenak martxan jarritz. Euskal Herriko Laborantza Ganbara jaino zen oztopo guztiak gaiturik.

Gertuko nekazaritza helburu, ekoizpen intentsibotik at, kalitatea lehenetsiz, sostengu jasagarria jomugatzat zuen nekazaritza eredu horrek aurki izan zuen bertako nekazarien babesa. Profesionalen maila gorenera eraman du Euskal Herriko Laborantza Ganbarak inguruko nekazari eta baserritarren ustiapen eta ekoizpen laguntza teknikoa ere. Bide horretan ezinbesteko erreferentzia bilakatu da Iparraldeko eta haratagoko nekazari munduan.

Beraz, haserako bi helburuei ongi asko erantzun dio EHLG-k. Bai Iparraldeko egitura instituzionalen parte hartzea eta baita laborantza herrikoia garatzea. ELB sindikatuko militanteen bultzadaz sortua, ELA-tik gertutik jarraitu dugu haren bilakaera emankorra. Gure babesa eta laguntza izan du bere proiektua egikaritzeko, nola militanteen lan serioaz herrian txertaturiko proiektuak gauzagarri eta erakargarri bihurtzen diren erakusteko. Guztiz eredugarria deritzogu bertan eginko lanari, eta badugu Hegoaldetik zer ikasia hemen bertan beste hainbat egitasmo errotzeko. Laborantza Ganbararen proiektua berea izaki, gurea ere bada; gurea egin baitugu filosofian, lan prozeduratan eta militanteen lana eskergaren erudian.

ELA harro dago militante horiekin partekaturiko esperientziak eta handik ikasitakoak. Ainize-Mojoloseko egoitza sinbolo praktikoa bilakatu da herri eraikuntzan egingarri suertatzen diren herri proiektuak, herriarentzat burutuak. Datozen urtetarako aurrekoetan baino uzta zabalagoa eta emankorragoa opa diegu bertako laborariei eta honelako proiektua abian jartzeko ausardia nahikoa erakutsi duten militantei. Zorionak, bihotzez.

**El Parlamento de Navarra aprueba la ILP promovida por ELA para garantizar unas condiciones mínimas para el personal subcontratado por la Administración**

## ¡LO HEMOS CONSEGUIDO!

**Lortu dugu! ¡Lo hemos conseguido!** Ese fue el grito de alegría que lanzaron las y los militantes de nuestro sindicato que a primera hora del jueves 15 de enero se acercaron al Parlamento de Navarra. Y, desde luego, tenían sobrados motivos para expresar su alegría. Esa misma mañana el Parlamento de Navarra aprobó por unanimidad una ley donde se incorporaba el contenido de la Iniciativa Legislativa Popular promovida por ELA para garantizar unas condiciones mínimas para los trabajadores/as subcontratados/as por las diferentes administraciones navarras.

Imanol Pascual, responsable de ELA en Navarra, destaca que la Iniciativa Legislativa Popular promovida por ELA y respaldada por la firma de 14.635 personas, neutraliza puntos de la reforma laboral. "Esta iniciativa obliga al Gobierno de Navarra, mancomunidades y ayuntamientos a cumplir una ley que, entre otras cosas, garantiza las condiciones laborales del convenio de sector más cercano, incluye la penalización a las empresas por incumplimiento, así como la subrogación de los trabajadores/as para mantener su puesto de trabajo en caso de cambio de empresa".

Pascual destaca la trascendencia que tendrá esta ley en las condiciones de miles de trabajadores/as navarros/as: trabajadores/as de la limpieza, construcción de obra pública, transporte comarcal, recogida de residuos, escuelas infantiles, jardines, monitores deportivos... "Estas personas tendrán ahora la garantía de que las empresas que se presentan a los concursos públicos no puedan tirar a la baja sus propuestas a costa de la reducción de las condiciones salariales y laborales de las plantillas".

Imanol Pascual quiere felicitar a las y los militantes del sindicato que han participado en la campaña para la recogida de firmas. "Una vez más, ellos y ellas han demostrado con su trabajo que la capacidad de transformación e influencia social de un sindicato está en la calle y en los centros de trabajo, y no en las mal llamadas mesas de diálogo social".



### EL PROCESO CONTINÚA ADELANTE EN LA CAPV

La Comisión Arbitral ha desestimado la Cuestión de Competencia planteada por la Diputación Foral de Bizkaia, por lo que estima que la Iniciativa Legislativa Popular planteada por ELA en la CAPV se adecua a la distribución de competencias prevista por la legislación. Por lo tanto, el proceso continúa su tramitación parlamentaria. Estamos, sin duda, ante una gran noticia para las 110.000 personas que han apoyado con su firma esta iniciativa. Al igual que como ha sucedido en Navarra, ELA seguirá trabajando para que la ley aprobada garantice, de la mejor manera posible, los derechos de las y los trabajadores subcontratados.

## ZORIONAK, EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA!

2005eko urtarrilaren 15ean Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortu zen; beraz, hamar urte igaro dira erakunde eredugarri honen sorkuntzatik. Urtemuga hau dela-eta, ELAk Euskal Herriko Laborantza Ganbara zoriondu nahi du, eta urte hauetan zehar egindako lan bikaina goraiatu.

Helburu bikoitzarekin sortu zen Euskal Herriko Laborantza Ganbara. Batetik Iparraldeko egitura instituzionalaren eraikuntzan parte hartzea; bestetik, laborantza herrikoia garatzea, laborarien, naturaren eta kontsumitzaileen arteko errespetuan oinarriturik. Hamar urte geroago, helburu hauen egikaritzan egindako lan bikaina txalotu beharrean gaude.

Hain zuzen, urtemuga hau ospatzeko Euskal Herriko Laborantza Ganbarak hainbat ekimen antolatu zituen urtarrilaren 17rako, larunbata, Ainize Monjolosen. Lehenik erakunde osatzen duten kide guztiek urteko asanblada nagusia deitu zen. Asanbladaren ostean, ospakizunerako aukera ere egon zen bazkari herrikoian.



**Lankidetu!**

## Hauteskunde sindikalen arduradun Txema Laisekak irakurketa positiboa egiten du epealdi-trinkoaren inguruan

# “HELBURUAK LORTU DITUGU”



**A**maitu da 2014. urtea, eta, hortaz, hauteskunde sindikalen epealdi-trinkoa. Oraindik goiz da behin-betiko datu ofizialak emateko, hori egitearen ardura duen hauteskunde batzordea ez baita urtarilaren amaiera arte biltzen. Hala ere, hauteskunde sindikalen arduradun Txema Laisekak aurreratzen duenez, gure sindikatuak lortu egin ditu epealdi-trinkoa hasi aurretik jarritako helburuak.

“Irailaren lehenetik abenduaren 31 bitartean berri diren delegatuen ia erdia ELAk lortu dugu. Euskal Autonomia Erkidegoan aukeratzen ziren 4.967 delegatuetatik 2.362 lortu ditugu, %47,55a. Nafarroan, berriz, aukeratzen ziren 992 delegatuetatik 283 izan dira ELArentzat, %28,53a. Honi esker posible izan da gure erronka lortzea: Euskal Autonomia Erkidegoan

dugun gehiengo zabalari eustea eta Nafarroan ahalik eta gehien haztea, jakinda Foru Erkidegoan bozketen erritmoa ezberdina dela eta delegatuen gehiengo orain berritzen dela”.

Hauteskunde sindikalen epealdi honen balantzea oso positiboa izan da ELArentzat. Eskualde eta sektore guztietan dugun ordezkari zabal eta gehienena berritzea lortu dugu, prozesu hau hasi zenean geneukan ordezkari zabal mantenduz.

“Aurki eman ahal izango ditugu behin-betiko datuak, baina pozik egoteko motiboak ditugu. ELAk Euskal Herriko langile jendearen alde egiten duen sindikalgintzaren garaipen berri baten aurrean gaude. Abagune oso gogor batean datorren garaipen bat, alderdi politikoen, patronalaren eta gainontzeko sindikatuen presio eta xantaiekin. Emaita bikaina, are eta gehiago kontutan hartzen badugu hauteskunde prozesu honetan 1.500 delegatu inguru gutxiago aukeratu direla. Datu horrek, langabeziaren alorrean suposatzen duen irakurketa dramatikoaz harantzago, ezin dugu ahaztu hauteskunde terminoetan sindikatu gehienenari eragiten diola nagusiki”.

Dena den, honek ez du esan nahi datozen aste eta hilabeteetan bozketa prozesu gehiago egingo ez direnik, bereziki Nafarroan, oraindik ere berri beharreko delegatuen kopurua oso zabala delarik bertan. Laisekak nabarmentzen duenez, “2015eko lehen egunetik uztaila bitartean 6.894 delegatu aukeratu beharko dira Hego Euskal Herrian. Esan bezala, bereziki aipagarria da Nafarroako datua, bertan oraindik 2.197 delegatu gelditzen baitira aukeratzeko”.

### EMAITZA BIKAINA EITB-N, GEHIENGO ABSOLUTUA MANTENDUZ

Urte hasieratik egindako hauteskunde prozesuak ez dira gehiegi izan, baina badira aipatu beharreko hainbat datu. Esaterako, EITBn lortutako emaitza bikainak. EITBn eta Euskadi Irratian urtarilaren 15ean egindako hauteskundeetan ELAk zituen ordezkariak mantendu zituen, baina datu garrantzitsu bat kontutan hartuta: lau ordezkari gutxiago aukeratzen ziren. Hortaz, EITB taldea osotasunean hartuta, ELAk bere gehiengo absolutuari eusten dio: 49 ordezkari, 27. (Aurreko hauteskunde epealdi-trinkoaren amaieran ELAk ere 27 ordezkari zituen, baina 53 ordezkari).

Bestalde, badira Laisekaren ustez ezinbestean aipatu beharreko beste bi emaitza. “Lehena Bilbon, Inter-tek enpresan. Berriz ere komitea osatzen duten bost delegatuak lortu ditugu. Bestalde, Legazpiko TTTn ELAk aukeratzen ziren 5 ordezkarietatik 3 lortu ditu. Gauzak honela, zera esan dezakegu. Industrian Legazpin dauden enpresa-komite guztietan ELAk gehiengo absolutua du”.

*“A falta de los datos oficiales podemos adelantar que ELA ha cumplido con todos los objetivos que se puso antes del comienzo del periodo concentrado de elecciones sindicales”.*

## FARMAZIA GASTUA, LAPURRETA SOZIALA

**R**amón y Cajal ospitalearen aurrean Belen Martinek egin duen gose-greba, bere senarrak C Hepatitisaren aurkako tratamendu berria har dezan, eta C Hepatitisaren Eraginpekoen Plataformak antolatutako itxialdiak arrazoi nahikoak badira mahai gainean eztabaida-gai hori jartzeko: farmazia-industriaren eginkizuna, osasun-eskubidea bermatzeari begira.

Sovaldi du izena tratamendu berriak, eta haren gastua itzela da; ez dago jakiterik oraindik 25.000 edo 60.000 eurokoa ote den; baina horrek zalantza jarri ditu gure osasun- eta farmazia-ereduak. Jotako pertsonak sustatzen duten eztabaidaren muina, noski, tratamendua hartzeko eskubidean datza, eskubide horri garrantzi handiagoa emanez, kostuak duenari baino. Ez dut eztabaidatuko nik lehentasun hori, gure kasuan Eusko Jaurlaritzak ziurtatu behar die tratamendua bizia galtzeko arriskuan dutenei; dena dela, nire iritziz, arazo horrek eztabaida zabalagoa eskatzen du: farmazia-industriaren eginkizunarena.

Harrigarria da tratamendu horrek berak 300 dolarretako kostua izatea Indian. Beraz, merkeago ateratzen zaie gure herri-administrazioei Indiara bidai ordaintzea gaixoei, eta han tratamendua erostea; gure herrian tratamendu bera finantzatzea baino. Bidaia-bilatzai-

le baten bidez ikusi ahal izan dut 600 euroekin kontratatu daitezkeela Bilbao-New Delhi hegaldiak, joan eta etorri, eta hotela. Arazoa ez da horren erraza, jakina; baina 1.000 euroengatik C Hepatitisaren aurkako tratamendua finantzatu daiteke, gaixo bakoitzeko. Hala ere, Osakidetzak 10 milioi euro ditu berezita 2015erako, kontzeptu horretarako; alegia, 123 gaixori Sovaldi tratamendua emateko eta 255 gaixori Simeprevia tratamendua emateko.

Indiaren eta Euskadiren artean dagoen aldea zera da: han lehentasuna ematen diote osasunari, eta aurre egiten diete farmazia-enpresei, eta azkenean enpresa horiek 80.000 dolarretan eskaini nahi zuten tratamendua 300 dolarretaraino merkatzen dute. Tirabira horren azpian mehatxu bat dago: sendagai generikoak ekoiztearena, baldin eta delako tratamendua arrazoizko prezio batean eskaintzen ez bada. Horatik dator prezio-aldea.

Edonola ere, hain funtsezko den kontu hori –osasuna eta botikak asmatzeko ikerketa– ez da onargarria enpresa pribatuen eskuetan egotea, gero administrazio publikoak lapurtzen dituztenak helburu jakin bati begira: aberastea. Farmazia-ikerketa erabat pribatizaturik dago; eta horrela, enpresa pribatuek ikertu, patenteen bidez eza-

guera berriak monopolizatu, eta gero herri-ogasunari lapurreta egiten diete, herritarrek sendagai berrien beharrez daudela jakinda.

Alde batetik, arlo publikoak gizartearen zerbitzurako ikerketa bat sustatu beharko luke. Zenbat ikertzaile ordaindu genitzake urtero 10 milioi euro horretarako edukiz? Farmazia-industria publikoa sustatuz gero, hortik sortuko den ezaguera gaixotasunak sendatzeko erabiliko litzateke, eta ez enpresa pribatuak gure osasunaren kontura aberasteko.

Bestetik, ezaguera monopolizatuak muga gaindiezina dira ikerketarako. Ezaguera baten %95 gizarte osoak sortu badu, ezin da zilegi izan enpresa batek %100 bereganatzea, gainerako %5 bakarrik ikertzeko, eta esparru horretako ikerketa 20 urtez geldirik geratzea, patente baten babespean dagoelako. Ikerketa guztiak oinarritzeko ezaguera batetik abiatzen dira, gizate-riak denboran zehar sortu duen ezaguera, eta enpresek ezaguera hori guztia berenganatzen dute patente baten bidez, hori onartezina da.

Baina hala gertatzen da, besteak beste, sendagaiak esku pribatuetan uzten direlako; eta ekimen pribatuaren helburua etekinak sortzea delako. Zer gertatuko litzateke osasuna erabat pribatizaturik balitz? Zer pentsatu ematen

du. Nolanahi ere, pentsatzekoa dena zera da: zenbat inbertsio egin litezkeen farmazia-gastu osoarekin, 450 milioi eurotik gorakoarekin.

Abenduan Euskal Kontseilu Sanitarioaren bilera batera joan nintzen, ELAren ordezkarietan. Han Osasun Sailaren 2015eko aurrekontua aurkeztu zen atalez atal. Nire aldetik, osasun-gastua igotzeko beharra aldeztu nuen, gutxienez gure inguruko herrialdeen batez bestekoaren mailaraino; beraz, aurrekontuak 1.200 milioi euro gehiago beharko luke. Halaber, artikulu honen edukia azaldu nuen Osasun sailburuordearen aurrean, eta erantzun moduan esan zuen gauza bakararra hauxe izan zen, ezin zuela sinetsi botikak prezio hori izango zuenik Indian.

Gizarte honek soberan sortzen ditu baliabideak, C Hepatitisak jotako gaixo guztiak artatzeko. Ezin dugu inor hiltzen utzi, administrazioak prest ez daudelako baliabideak dauden tokian bilatzeko. Ezin ditugu ontzat eman farmazia-industriaren erasoak, gure kontura aberastu nahian. Politika ausarta behar dugu, sendagaiak ikertzeko eta ekoizteko apustu garbia egingo duena. Eta bitartean Indiarako bidaiak ordaindu ditzatela.

**Peio Igeregi, ELA-Osakidetzako arduraduna**

## LABURREAN / BREVES

### ● Acuerdo en el convenio de limpieza de Gipuzkoa

ELA, que tiene el 53,10% de la representación en el sector, ha alcanzado un acuerdo con la patronal Aspel sobre el convenio de limpieza de Gipuzkoa. Edurne Iriondo, responsable del sector en Gipuzkoa, destaca que este acuerdo deja la reforma laboral fuera del convenio. "El acuerdo recoge importantes cláusulas anti-reforma. Por un lado, una ultra-actividad larga de cinco años, de manera que el convenio seguirá aplicándose hasta el año 2022. Por otro lado, prohíbe a las empresas del sector descolgarse unilateralmente del articulado del convenio, por lo que no podrán acudir al ORPRICCE (órgano de arbitrajes) si no hay acuerdo con la parte sindical".

El acuerdo recoge, además, incrementos salariales del 1% para el año 2015, del 1,2% para el 2016 y del 1,4% para el 2017. En este punto Iriondo reconoce que las subidas acordadas han quedado por debajo de los objetivos que nos marcábamos, porque suponen una pérdida de poder adquisitivo para las trabajadoras, siendo las empresas las únicas beneficiadas. "Desde ELA intentaremos en las negociaciones a nivel de centro mejorar el aspecto salarial y recuperar la pérdida de poder adquisitivo de años anteriores".

"No obstante –añade– la valoración global es positiva. El convenio de limpieza de Gipuzkoa es el único convenio del sector de Hego Euskal Herria que garantiza dos aspectos: no recoge aspectos regresivos (no hay pérdida de derechos) y el arbitraje es voluntario. La patronal, utilizando el poder que le ha dado la reforma laboral, planteó eliminar derechos del convenio como el de la antigüedad, bajo la amenaza de dejar caer el convenio. Tampoco podemos olvidar que el convenio mantiene en su integridad todo el articulado con contenidos importantes como las 35 horas semanales y mejoras de bajas logradas en luchas anteriores".

Por último Iriondo quiere agradecer la lucha que ha desarrollado la militancia de nuestro sindicato durante estos últimos meses. "Le damos mucho valor a las movilizaciones secundadas por las trabajadoras. Durante este último año, se han secundado tres convocatorias con 10 días de huelga. ELA ha participado en todas ellas, a veces en solitario y en otras ocasiones con más sindicatos".



### ● Langileon borroka Aguraingo Arcelorren itxiera eragotzi du

Aguraingo Arcelor Mittaleko zuzendaritzak, –SAPEM ohiak–, lantokia itxeko asmoa iragarri zuen 2014ko abenduan. Iragarpen horren aurrean langileek greba mugagabea deitu zuten, eta herrian zein eskualdean elkartasuna lortzeko hainbat ekimen egin zituzten. Borroka bere fruituak eman ditu: urtarilaren 14ean zuzendaritzarekin lortutako akordioari esker itxiera iragarpena bertan behera geratu zen.

Industria eta Eraikuntza Federazioko arduradun Luis Fernandezek oso irakurketa positiboa egiten du lortutako akordioaren inguruan. "Hiru oinarri adostu ditugu. Lehenik, Arcelorrek industri-proiektu bat egi-

teko hitza eman du; beraz, lantegia itxia baztertu du. Bigarrenik, langileentzako irteera ez traumatikoak negoziatzen hasia adostu da, bide desberdinak aztertuz: erretiro aurreratuak, eszedentziak, lekualdatzeak... Azkenik, enpresak hitza eman du Enpleguaren Erregulazio Espedientearen kontsulta-epaia ez dela hasiko aurreko bi puntuetako aukerak agortu arte".

Fernandezek azpimarratzen duenez lortutako oso pozik egoteko modukoa da, baina borroka hasi besterik ez dela egin gaineratzen du. "Egunez egun aztertu beharko dugu negoziazioen nondik norakoak. Negoziazioa garatu hala epaituko dugu akordioa. Langileek erakutsi dute, indarrez eta antolatuta, beren esku dagoen guztia egiteko prest daudela konponbide orokor bat iristeko".

### ● Osakidetza trata de comprar acuerdos sindicales

Peio Igeregi, secretario general-adjunto de ELA-Gizalan, denuncia que la dirección de Osakidetza pretende comprar acuerdos sindicales a cambio de favores electorales. "Osakidetza está manteniendo reuniones bilaterales con los sindicatos, –por cierto, con todos menos con ELA–, en las que está ofreciendo modificar la representación sindical favoreciendo a quienes se pudieran disponer a desmovilizar a la plantilla. Esta manipulación electoral pretende modificar la representación sindical y castigar el sindicalismo reivindicativo y autónomo que ELA representa".

Igeregi considera que estamos ante un claro intento desesperado de evitar nuevas movilizaciones. "Estamos seguros de que ningún sindicato entrará en este juego. No solo está en juego la unidad de acción, se juegan las condiciones de trabajo de la plantilla y la calidad de nuestra sanidad pública. Un puñado de delegados y delegadas no valen todo eso".

### ● El nuevo ERE en Aernnova es otro fraude

Gustavo López de Armentia, responsable del metal de Araba, destaca que el nuevo expediente de suspensión presentado por Aernnova es un nuevo fraude a las y los trabajadores. "Decimos rotundamente que es un nuevo fraude porque hay una importante carga de trabajo. Los argumentos presentados para justificar el ERE son falsos, y es evidente que el objetivo de la dirección es desviar la producción de la fábrica de Beranturi para dejar morir la planta".

### ● El convenio del metal de Navarra vulnera la libertad sindical

El Juzgado de los Social de Navarra ha aceptado la demanda interpuesta por nuestro sindicato, declarando la nulidad de tres artículos del convenio del metal de Navarra. (Los artículos 25, 26 y una disposición sobre inaplicación). La sentencia considera que lo firmado por UGT, CCOO y la patronal en el convenio del metal de Navarra supone una lesión de la libertad sindical al resto de sindicatos del sector que no firmaron el convenio.

ELA cree que esta sentencia demuestra que la prioridad de UGT y CCOO no es la negociación colectiva, ni combatir la reforma laboral, sino aprovechar este convenio sectorial para conseguir funciones y competencias que ni la propia ley ni los trabajadores/as les otorgan. En definitiva, lograr el monopolio sindical ignorando la voluntad de las y los trabajadores mediante prácticas antidemocráticas.

### ● Preacuerdo en Candy de Bergara

La asamblea de trabajadores y trabajadoras aprobó el 29 de diciembre el preacuerdo alcanzado entre la dirección de Candy y el Comité de Empresa. El acuerdo recoge la posibilidad de que las personas cercanas a la jubilación puedan acceder a una digna jubilación. Respecto al resto de trabajadores y trabajadoras, se ha acordado un expediente de suspensión de contra-

tos de cinco meses de duración, con el objetivo de posibilitar un proceso de reindustrialización.

Patxi Zubizarreta, responsable del metal en Deba, destaca que el proceso de reindustrialización impulsado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, –y, por lo tanto, la conversión del preacuerdo en acuerdo–, está supeditado a la consecución de un acuerdo entre Candy y la propia Diputación para la transmisión de las instalaciones y los terrenos. "En nuestra opinión es un buen acuerdo, ya que descarta la vía judicial, que además de la incertidumbre que nos genera haría imposible cualquier intento de reindustrialización. Aun así, nos reafirmamos en lo que hemos dicho hasta ahora. No es más que una multinacional que quiere deslocalizar su producción para aumentar sus beneficios".

### ● La reforma fiscal aprobada en Navarra es un despropósito

UPN, PSN y PP aprobaron el 23 de diciembre una nueva reforma fiscal. Mixel Lakuntza, coordinador de ELA en Navarra, considera que la reforma es un despropósito que traerá graves consecuencias, como el aumento de la desigualdad. "Es necesario cambiar radicalmente la política fiscal. Sólo así se podrá asegurar un nivel de protección social digno, sin recortes en los servicios públicos. Además, resulta más necesario que nunca terminar con la permisividad y luchar fuertemente contra un fraude fiscal que ésta reforma ignora por completo".

"La reforma fiscal –añade– muestra que los recortes son una cuestión de voluntad política. Los partidos que la han aprobado han decidido seguir haciendo recortes en vez de disputar los privilegios a las élites económicas y empresariales navarras. Además, es necesario lamentar que la oposición no dé la centralidad que requiere a la distribución de la riqueza".

### ● El 'Programa de Activación para el Empleo' respalda las políticas antisociales de Rajoy

El 15 de enero entró en vigor el *Programa de Activación para el Empleo*, acuerdo logrado en diciembre en Madrid por el Gobierno español, los sindicatos UGT y CCOO y las patronales CEOE y CEPYME. ELA considera que este plan no mejorará ni la empleabilidad ni la situación económica y personal de las personas sin empleo. Además, es evidente que las competencias tanto del Gobierno Vasco como el Gobierno de Navarra quedan en entredicho.

### ● Paros en Sanitas de Barakaldo

La plantilla de la Residencia Sanitas de Barakaldo comenzó el 16 de enero una serie de movilizaciones que se prolongarán hasta el 20 de marzo. El objetivo es denunciar, por una parte, la nula voluntad de la dirección de garantizar unas condiciones laborales dignas y, por otra parte, las graves irregularidades existentes en materia de seguridad y salud laboral.

Además, ELA quiere denunciar la pasividad e irresponsabilidad mostrada por la Diputación Foral de Bizkaia, que no está asumiendo la responsabilidad que le corresponde para asegurar la prestación de un servicio de calidad, garantizando unas condiciones laborales dignas y el cumplimiento estricto de la ley en materia de seguridad y salud laboral.



**Xabi Anza, responsable de formación, analiza el contexto y la situación creada tras la llamada operación 'Mate' y el registro de la sede de LAB, realizadas el 12 de enero**

## **"QUIEREN ELIMINAR CUALQUIER ORGANIZACIÓN COLECTIVA ENTRE LOS PRESOS Y LAS INSTITUCIONES PENITENCIARIAS"**



### **-¿Qué análisis hace ELA de la operación policial del pasado día 12 de enero?**

-La operación policial del pasado lunes, que ha supuesto la detención de 16 personas, entre ellas, numerosos y numerosas abogadas que ejercen su profesión representando y defendiendo a presas y presos vascos, nos hizo retroceder en el tiempo, como si los últimos años en Euskal Herria hubieran pasado en balde.

La redada era totalmente prescindible si tenemos en cuenta que detuvieron personas perfectamente localizables, que se habían puesto a disposición del juez que ha ordenado las detenciones y que desarrollan su trabajo en la Audiencia Nacional, en cárceles y en despachos de conocimiento público.

Y más prescindible, si cabe, si tenemos en cuenta que el 14 de enero las y los abogados ya estaban en libertad, lo que demuestra que tras esta operación policial hay circunstancias y elementos que hacen entrever razones de índole política y que nos hacen sospechar que su verdadero objetivo poco o nada tie-

ne que ver con lo manifestado por el Gobierno español.

Además de las consecuencias directas sobre las personas detenidas, estas actuaciones, en su reiteración, han arrasado una y otra vez con derechos y garantías fundamentales que debieran proteger a toda la ciudadanía y que, en una auténtica democracia, debieran estar aseguradas por encima de intereses de otro tipo.

### **-ELA ha afirmado que se trata de una redada política.**

-El Partido Popular –acosado por los incontables casos de corrupción y por las muy desfavorables encuestas electorales– ha decidido galvanizar la opinión pública española con una nueva espiral represiva para Euskal Herria, y ello en busca de los mismos réditos que en el pasado le otorgaba la política antiterrorista. Estas operaciones agreden directamente a una nueva situación política y social en la que se están realizando importantes esfuerzos para impulsar y hacer realidad un escenario de paz, libertad y democracia.

Frente a ello, encontramos a un Estado empeñado en lo contrario: un Gobierno que refuerza estrategias que en sí mismas suponen la vulneración de derechos humanos, civiles y políticos en lugar de aportar y asumir responsabilidades para desbrozar y consolidar un camino que conduzca a la superación del conflicto y sus consecuencias.

### **-La operación desarrollada por la Guardia Civil no puede desligarse del éxito de la manifestación celebrada el 10 de enero contra la dispersión de los presos y presas.**

-Evidentemente que no. Se reproduce este año la misma lógica represiva que en el mes de enero de 2014 prohibió la manifestación anual por los presos, entonces tras la detención de sus interlocutores. Criminalizar la solidaridad con las personas presas y sus familiares constituye uno de los objetivos evidentes de esta operación.

Esta operación deja, por otro lado, en desamparo e indefensión a un grupo de ciudadanos y ciudadanas, los 35 militantes encausados por su actividad política en el sumario 4/08, cuyo juicio comenzaba precisamente el mismo día 12, y que ha sido aplazado. La detención de sus abogados y abogadas, sólo unas

horas antes de la apertura del juicio, no tiene más objeto que la contaminación propagandística por parte del gobierno.

### **-Ante esta vulneración de derechos llama la atención el silencio del Lehendakari.**

-Una vez más el lehendakari Urkullu ha estado absolutamente desaparecido, lo que nos parece una decisión política totalmente errónea. Ante la gravedad de estos hechos y ante la certificación definitiva de que ni existe ni va a existir una agenda estatal de soluciones para Euskal Herria, ELA considera que las instituciones vascas, y en particular el lehendakari Urkullu, deberían liderar una dinámica plural y convergente de afirmación democrática y nacional, para la defensa de todos los derechos de todas las personas y grupos.

### **-En la lectura que hace ELA de la situación en la que nos encontramos queremos romper con el mito de la denominada posición inmovilista del Estado.**

-Lo que está haciendo el estado tiene un objetivo político. En el caso de lo sucedido el lunes es muy claro: el estado ha decidido que entre el preso individual y las instituciones penitenciarias no puede haber ninguna organización o asidero colectivo, que los presos no tienen derecho a organizarse. A partir de ahí el ministerio busca un juez que comparta esa decisión y unos cuerpos de seguridad que la ejecutan.

Desde un perspectiva más general también es falso el calificado inmovilismo del Estado. El Estado tiene el objetivo político de mantener al conjunto de la izquierda abertzale empantanada en agendas del pasado, de impedir que pueda trabajar otras agendas con normalidad, resquebrajando así la cohesión interna y de liderazgo dentro del movimiento.

### **-¿Hay alternativa a la situación que describes?**

-Por supuesto que sí. Es el momento de que este pueblo salga de la espiral a la que pretende tenerle atado el estado español; es el momento de mirar adelante, de comprometerse y dar pasos. Los y las ciudadanas de Euskal Herria ya hemos decidido que queremos vivir en paz, democracia y libertad. Hagámoslo realidad, salgamos de la espiral. Para ello, ELA, junto a otros agentes políticos, sociales y sindicales, seguiremos movilizándonos para exigir derechos humanos, paz y resolución del conflicto.

**www.ela.eus / @ELAsindikaturia / ELA-Facebook**

**ELA**  **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao

Tel. 94 403 77 00

Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela.eus**

**Franqueo concertado  
nº 08/207**